

# ARRASATE PRESS

1993ko uztailak 16

200. zenb.

Elkarrizketa  
**Beatriz  
Arzamendi**



Seaskari laguntzen

# Oporrak lanean





# Otamendi (San Andres) (I)

**A**skok, gehixenok, pentsau arren Otamendi basarrixe Bedoña auzokue dala, izetex San Andres da.

Gain-gain baten kokatute dau eta denpora baten Azatza aldetik Mundrauera eta Zubillagara oiezen estradak etxe honen onduen eukien bidekurtzie. Emoten dau nozbaitten inportantzia haundikue izenda dauela.

Aspaldittik baserri hau bi bizitzakue da.

1968garren urtien erosi zan, ordurarte honen ugezaba Kuban bizi izen zan, Leopoldo Solana izen zala.

Gaurkuen, fatxadie Bedoñarutze begira dauken aldien



egon gare.

Hemen bizi dienak Antonio Arana Injidua bertako semie, bere andrie, Lorentza Altuna Mondragon, Lurdes, Pako ta Ana euren seme-alabak eta Atarratz eta Urtzuia

ilobak die. Beste bi seme-alabak, Axun eta Iban, ez die bertan bizi.

Lorentza San Andreseko Estradakuen jaixotakue da. Etxe honen arrastorik bistan egon ez arren, Otamendi bai-

no zeozertxobaitt beheratxuau euen, estrada kontran.

Antonio leku askotan lanien ibilittekue da. Ezkondu aurretik Zerrajeran eta Pasajeseko bakaladeruen Pisbe konpañiako barkuetan.

Hemen ebillela ezautu zittuen Groenlandia eta Terranova inguruetako izotzak eta eskimalak.

Ezkondu ostien lelengo Roneon eta gero hogetazortzi urtien Fagorren 607 sozio numeruaz.

Gaur jubilaute dau.

Antonion aitte, Julian Arana Guridi bertako semie zan eta 52 urtien ziher Zerrajeran lanien ibillittekue. Eta ama Jazinta Injidua Errasti Arientzako Intxaurbe etxekue.

# Ehune

*Apaintxeta*

*Etxe txukuna*

*Txoko kuttuna*

Otalora, 21  
Tfnoa: 77 11 48  
ARRASATE



Gatzagan,  
erdi erdian...  
**ZUHAITZ  
JATETXEA**




**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 56 11



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du




Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

.....

Ospakizuna alegau jako  
gure aldizkarixari:  
irakurlea, begituixozu  
berrehungarren aliari.  
Ta aurrera be ARKOk fin asko  
obatukutzo lanari  
zure buzoian jarraitu deixen  
asteroko bisitari.

.....



• ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40  
**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabier



**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**  
 **77 05 65**

**VE ECUADOR**  
**Bidaiak**  
 Kontzeziño, 2  
 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 14 06

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**  
**Zerbitzuak:**  
 Diagnostikoa-Orientazioa  
 Estimulazio goiztiarra  
 Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)  
 Logopedia  
 Laguntza terapia  
 Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia  
 Ignazio Zuloaga kalea, 10  
 Tfnoa: 79 48 77  
 ARRASATE

**Memesa**  
**79 42 22**

••••  
**Hemen badugu zerk PREokupa**

**B**eren delitua, aspalditik hutsik zeuden etxebatzuk txukundu eta bertan bizitzea... Bai, **Ferixalekuko okupetaz** ari gara, etxebizitzaren arazoa azaltzen diguten zazpi gazte horietaz, askoren arazoa, bestalde.

**Udalak**, ostera irizpide bitxi bat adierazi du istilu honetan, arazoari buelta eman diolarik; antza denez, gehiago arduratzen du salariatarienez kezkak etxegabeen arazoak baino, konponbide errezenara jo duelarik: **Desalojua!**

Bere hauteskunde-programetan eta etxebizitzaren arazoaz, zergatik eskeini ziguten —bereziki gazteei— etxe huts abandonatuaren birmoldaketa, gerora erabiliak izateko? Zergatik ez ziguten azaldu indarra erabiliko zutela arazoa ez konpontzeko?

Gauzak honela, ze zentzu zeukan martitzen 2ko plenoak? Zazpi pertsona inplikatuak premiazko moztio bat aurkeztu zuten, bertan etxebizitzaren arazoarekiko zenbait alternatiba azalduz. Erantzuna honako hau izanik: 19 zinegotzi ordubetez mutu, poltronen babespean eta Alkatea “guardian”, azkenean, aho batez eta Korporazioaren oneritziarekin beren konponbidea azaltzeko: **Desalojua!**

Ikara sortzen du zenbat aldiz errepikatu zen Udalak ez daukala zer eginik “hone-

taz”, desanimoa ostera zenbateko gogoz diharduten dinamika honetan, salaketa eskatzen duelarik arazoa konpontzeko interes ezak.

Zein beharren ondoren erabaki zen ikastetxea —bere osotasunean— Ikastolaren esku uztea?

Beharretaz mintza gaitetzen: ba al dago gure herrian ikastetxe gehiagoren beharrik?... Zenbaitzuk baietz diote; iritziak, dena den, ez dotoz bat.

Zentzurik badauka Hezkuntza pribatizatzeak?

Ostera errepika behar da Arrasaten badagoela Euskal Eskola Publikorik, guztiz dohaina eta 2tik 18 urtera arteko hezkuntza eskaintzen duena?

Ez ahal luke Udalak berak Publikoa bultzatu behariko?

Udalaren ustez, arazoa handiegia da konpondu ahal izateko, Zutik-ekoon ustez, berau larriegia da kontutan ez hartzeko!

Arazoari konponbidea bilatu behar zaio. Kale gorrian zenbait pertsona uzteak, **nahiko nabarmen** uzten du arazoa ez dela konpontzen. Etxebizitza beharrek hor diraute. Konponbideak bilatzen saia behar genuke.

**ARRASATEKO ZUTIK ETA HAUTSI**

**Euskara Gabarditon**

**r**ain dela gutxi, aragoetar Pirineoan kokaturiko Hecho bailararuntz egindako txango batean, Gabarditoko aterpean nafar gazte pare batein topo egin nuen; izan ere, zortzi urtetako epeaz alokatuak duten aterpe hau aurrera darabate bi mutil hauek: Andoni, Etxaurikoa eta iruñeatar Juanto. Azken honek, euskaldunberria bera, zera komentatu zidan: nahiz eta euskara Iruñean ikasitakoa izan, Gabardito bereberean hasi dela askatasuna eta erraztasuna areagotuz euskara mintzatzen, aterpetik pasatzen den euskaldun piloari esker.

Espero dut, bai bere euskarak hobetzen jarrai dezan eta baita negoziario aurrera atera dezaten ere, euskaldunok Hechoko bailara eder hau bixitatzeko gogoak horrela jarraitzea.

Dei hau egingo nuela hitz eman nien, eta besterik gabe, ARRASATE PRESS bitarteko delarik, agur bero bat Andoni eta Juanto!

**ARRASATEAR MENDIZALE BAT**

**HIES EKIMENA**  
 Astelehen, astearte eta ostiral  
 5etatik 8etara.  
 Tfnoa: 79 26 99

**Onduline TXOMIN HERIZ**  
  
 eraikuntzarako materialak  
 Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
 ARRASATE



# Zaborrak orduz kanpo ateratzeagatik multen alde?



**Juan Antonio Doyage**  
Dendaria  
(33 urte)

Ondo iruditzen zait multak jartzea. Egun hauetan egin duen beroarekin oso usain txarra egoten da kale batzuetan. Maila horretan, nik behintzat errespetatzen ditut arauak.



**Balentina Errasti**  
Jubilatua  
(79 urte)

Oso ondo iruditzen zait. Gure etxe aurrean pilo izugarriak egoten dira orduetatik kanpo. Beraz, multak jartzea ondo iruditzen zait.



**Pedro Sagasta**  
Roneoko langilea  
(39 urte)

Multak jarri beharrekoak dira arauak errespetatzen ez direnean, eta zaborrekin askotan hori gertatzen da. Gehienetan nik jeisten dut eta batzuetan piska bat lehenago ere jeisten dugu.



**Txaro del Palacio**  
Langilea  
(33 urte)

Ondo iruditzen zait. Askotan tokatzen zait zabor poltsa jeistea eta orain arte ez didate inoiz multarik jarri.



**Maria Jesus Zubillaga**  
Jubilatua  
(68 urte)

Oso ondo dago hori. Nik beti hamarrak laurden gutxitan ateratzen ditut eta beti orduetan ateratzen saiatzen naiz gainera.



**Amador Martinez**  
Gameiko langilea  
(37 urte)

Oso ondo. Jende asko arratsaldeko 6etan ateratzen ditu eta zenbat eta pertsona nagusiagoa izan, txarrago. Ferrerias kalean, batez ere, oso gutxi errespetatzen da.



**Maria Blanco**  
Etxekoandrea  
(50 urte)

Oso ondo iruditzen zait. Niri ez didate inoiz multarik jarri, hamarrak baino piska bat lehenago ateratzen dut eta.



**Jabier Aranguren**  
Uribesalgoko langilea  
(60 urte)

Sarriago pasatuko balira, ondo irudiko litzaidake multak jartzea, baina adibidez, ostiraletik igandera ez dakigu zaborrak non utzi.

**Iurrindegia**  
**perfumeria**

**ZARRAOA**  
**EL ARCA DE NOE**

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



**Umeentzako**  
**moda**

Ferrerias Kalea, 34  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 97 86



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetzeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Iguaiatoroa ..... 79 05 00  
 Sania Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 71 44 52  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta  
 Erabiltzaileen Elkarteak ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 16**  
 Egunez: Corcuera. Musakola.  
 Gauzez: Corcuera. Musakola.

**Larunbata 17**  
 Egunez: Amezua. Santamaina.  
 Gauzez: Amezua. Santamaina.

**Igandea 18**  
 Egunez: Azkoaga. Ferrerías.  
 Gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

**Astelehena 19**  
 Egunez: Español. Iturriotz.  
 Gauzez: Español. Iturriotz.

**Asteartea 20**  
 Egunez: Corcuera. Musakola.  
 Gauzez: Corcuera. Musakola.

**Asteazkena 21**  
 Egunez: Amezua. Santa Marina.  
 Gauzez: Amezua. Santa Marina.

**Osteguna 22**  
 Egunez: Azkoaga. Ferrerías.  
 Gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

**16 OSTIRALA**

**ZINEA**

"Regreso a Howards End" (7,10)

**ROCK JAIALDIA**

"Parabelum" eta "Anticuerpos" taldeen rock jaialdia. Gaueko 11.30etan. Aretxabaletako Portasol auzoko jailetan.

**ANTZUOLAKO JAIK**

Tapia-Leturia eta Urtz taldearekin dantzaldia. Gaueko 10etan. Antzuolako Plazan.

**POP KONTZERTUA**

"Less trance" taldearen pop kontzertua. Gaueko 11etan. Eloorrioko Kafe Ateneon.

**SANTAMAINAKO JAIK**

"Quinto nivel" taldearekin dantzaldia. Gaueko 11etan.

**SANTAMAINAKO JAIK**

Gaur, ostirala Santamainako jaiak hasten dira. Bihar, larunbata egun handiena izango da. Goizeko 9etan hasiko dira ekintzat eta egunean zehar hainbat gauza egongo dira ikusgai: txikientzak jolasak, jubilatuentzat bazkaria, pilota partiduak, dantzaldiak... Igandean, berriz, gazteen-tzako futbitoko final nagusiak, tute eta mus txapelketak, erraldoi eta buruhandiekin kalejira, jaialdia basurde, pony eta abarrekin, eta jaiei amaiera emateko, Kaixo taldearekin dantzaldia eta gaueko 12.30etan azken traka.

**17 LARUNBATA**

**ZINEA**

"Regreso a Howards End" (5,7.30,10)

**24 ORDUKO FUTBITO TXAPELKETA**

24 orduko futbito txapelketa. Hasiera: eguerdiko 12etan. Bukaera: 18ko eguerdiko 12etan. Izenematea: aurrez Branka tabernan.

**ANTZUOLAKO JAIK**

Herriko txistularien kalejira, 10etan; Bergarako bandarekin kontzertua, 130etan; Maiuruaren agertaldia, 6etan; Mikel Saralegi harrijasotzailearen saioa, 8etan; pilota partiduak, 10etan eta Egan taldearekin dantzaldia, 10.30etan.

**SANTAMAINAKO JAIK**

Gaztetxoaren pilota finalak, 11etan; txikientzako finalak, 12etan; jubilatuei omenaldia, eguerdiko 1etan; pilota partiduak, 4.30etan; herri kirolak, 7.30etan eta "Edel Weis" taldearekin dantzaldia, 11etan.

**ANTZERKIA**

Al Andalus taldeak "Tambor y cascabeles" obraren emanaldia. Arratsaldeko 7etan. Aita Menni Ospitalean. Sarrera librea.

**TALDE ARRASATEARREN KONTZERTUA**

"Iskanbila" eta "Zakarrak" talde arrasatearren kontzertua. Madrileko etxe okupa batean. Sharp Madrid taldeak antolatuta.

**ROCK KONTZERTUA**

"Mister Xaguak" eta "Skunk" taldeekin rock kontzertua. Gaueko 9etan. Arrasateko gaztetxean.

**18 IGANDEA**

**ZINEA**

"Jennifer 8" (5,7.30,10)

**MENDI IRTEERA**


Igoa-Zubieta mendi irteera. Irteera: goizeko 7etan Garibaitik. Izena emateko: Besaideko egoitzatik pasatu.

**ANTZUOLAKO JAIK**

Txirindularien froga, 9.30etan; paella gertaketa, 10etan; herri bazkaria, 2etan; errusiar folklorea, 6etan; Gaubela taldearekin dantzaldia, 10etan.

**SANTAMAINAKO JAIK**

Gazteentzako futbito txapelketa, 10etan; tute eta mus txapelketa, 3etan; "Kaixo" taldearekin dantzaldia, 10etan.



**MENDI IRTEERA**

**Besaide mendizale elkarteak mendi irteera antolatu du datorren iganderako, uztailak 18. Igoa eta Zubieta zeharkatuko dira eta irteera goizeko 7etan Garibai geltokitik egingo da. Interesatuok Besaideko egoitzatik pasatu beharko duzue eta honako hauek dira ordaindu beharreko kuotak: bazkide nagusiek 1.000 PTA, bazkide gazteek 500 PTA, bazkide ez diren nagusiek 1.300 PTA eta bazkide ez diren gazteek 800 PTA.**



**19 ASTELEHENA****ZINEA**

"Jennifer 8" (7,9.30)

**20 ASTEARTEA****ZINEA**

"Jennifer 8" (7,9.30)

**21 ASTEAZKENA****HBK ANTOLATUTAKO****BILERA**

"San Juanetako kuadrila eta udalaren arteko gatazka" aztertzeko bilera. Arratsaldeko 7etan. Arrano elkarte. HBK antolatuta. Interesatu guztiei zabaldua.

**22 OSTEGUNA****FOLK EMANALDIA**

Kolonbiako talde folklorikoaren emanaldia. Gaueko 10.30etan. Monterron Park. Sarrera: 500 PTA.

**BOLUMEN HANDIKO GAUZEN BILKETA**

Bolumen handiko gauzen bilketa egingo da. Ohiturazko tokietatik pasatuko da. Interesatuok deitu Mankomunitera.

**ARRABALEKO JAIK**

Etxaflero jaurtiketa, 8etan; umeen jolasak, 4etan; trikitixa, 7etan; Estradetan azeria, 9etan; musika, 10.30etan eta suzko erruberak 11etan.

**24 ORDUKO FUTBITO TXAPELKETA**

**Uribarri auzoko jaien barruan 24 orduko futbito txapelketa jokatuko da datorren 17 eta 18an. Izena Branka tabernan eman behar zen eta partiduen zozketa gaur, uztailak 16, arratsaldeko 7etan eta Udaletxeko Pleno Aretoan egingo da.**

**BI ERAKUSKETA ZABALIK**

Arrasateko Harresi Aretoan eta Monterronen pintura erakusketak daude zabalik. Harresi Aretoan Mari Karmen Garai, artista arrasatearraren erakusketak dago zabalik. Arrasateko Musakola auzoan jaio zen Mari Karmen eta txikitatik eskolako marrazkietan hasi ziren agertzen bere lehen aztarna pikturikoak. 31 kuadro ikus daitezke erakusketan eta datorren uztailaren 25ean itxiko da. Bestalde, Monterronen zabalik dago pasa den astelehenetik Aita Menni Ospitaleko gaisoek eginiko lanen erakusketa. Jon Balentziagak zuzendu ditu klaseak eta pintura zein zeramika lanak ikus daitezke.

**ARRABALEKO JAIK**

Datorren uztailaren 22an Arrabaleko jaiak ospatuko dira. Goizeko 8etan etxaflero jaurtiketa egingo da. Arratsalde partean izango dira ekintza nagusienak: 4etan ume jolasak eta txokolatada, arratsaldeko 7etatik aurrera trikitixa egongo da eta 9etan urtero bezala, afari herrikoia egingo da Estradetan. Gaueko 10.30etan musika saioa hasiko da eta 11etan, berriz, suzko errubera. Igandean, uztailak 25ean ere jubilatuen omenekintza desberdinak egingo dira.

**"ADIBIDEZ" ERAKUSKETARAKO KARTEL LEHIAKETA**

Hies Ekimeka Adibidez erakusketara iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Erabili beharko diren teknika zein formatoa, libreak izango dira eta abenduan egingo den erakusketara honen kartel iragarlean honako testu hau irakurri beharko da: "Adibidez. Arrasaten abenduaren 1etik 23ra". Lanak aurkezteko epea 93ko irailaren 26an bukatzen da eta Hies Ekimeneko bulegora igorri beharko dira. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, 79 26 99 telefonora dei egin dezakezue.

**IRAILEKO UDALEKUTXOAK**

**AEDk antolatutako iraileko udalekutxoetan parte hartzeko interesa duzuen neska-mutiko guztiontzat, izena emateko epea bukatzeaz dagoela jakin erazten da. Datorren kurtsoan haureskolako hirugarren maila eta OHOk lehen eta bigarren maila hasi behar dutenentzat dira udalekutxo hauek. Bi txanda bereiztuko dira: irailaren 6tik 17ra eta irailaren 6tik 24ra. Hurrek euskararen erabilera indartzea, taldean dinamika aktiboa sortzea, naturarekin harreman zuzena izatea eta maitatzen ikastea dira udalekutxoetako helburuak. Lehen txanda aukeratzeko dutenek 3.200 PTA ordaindu beharko dute eta bigarrenerako 4.200 PTA.**





“Hazi berria erein eta babestu egin beharra dago, baina hazi hori ez dugu inportatuko gutxiago kutsaturik dagoen planetako beste leku batetik. Aitzitik, informazioarako eta parte-hartzea sustatzeko programa sofistikuaren bidez egingo da, konprometitu gabe daudenak “pixka bat” konprometituz eta pixka bat konprometitu daudenak “konprometituak” izatera helduz. Hauxe da hain zuzen ere, planteatu beharko genukeen gizarte birmoldaketa. (...)”

Korporazioan lan handia egiten da Mondragon Talde Kooperatiboaren eredu hainbat nazionalitate, arraza, kolore eta ideologiako hamaikatxo bisitariri agertzen (esportatzen). (...) Barrutik bizi dugunok ez gara sinesteko gai izango; besteak beste, behar duguna horixe da, bene-benetan sinestea, eta norabide berean jotzea bai zuzendaritza-bazkideak bai oinarri-bazkideak. (...)”

Euskal Herrirarekin konprometituriko pertsonen Mondragon Enpresa Sistema Kooperatiboak bizirik jarrai dezan interesa izango dutela uste dutenetakoa naiz; bizirik, baina egoera politiko-ekonomikoarekin bat datozen hobekuntzak eta eguneratzeak eginda”.

**Esteban Laskurainek.**

**TU lankide**

“Teknologia da krisitik irten ahal izateko kakoa. Teknologia faktore inportantea da momentu honetan aurrera irteteko, baina giza-formazioa eta birziklapena ez dira albora utzi behar. (...) MCCk badu bere buruaren euskarri izateko adina egitura, baina sekula ez da erabateko satisfazioa iristen, izan ere, aurrera egin ahal izateko insatisfakzioa izan behar da beti”.

**Manuel Quevedo 93-7-8.**

**EL DIARIO VASCO**

**AUKEAko ordezkartzarako hautagai bakarra dago...**

**A**UKEAko estatutuen arabera, Kontsumitzaileen Bulegoari dagokio erabiltzaileen ordezkaria izendatzea. Hasieran, 88tik 90era, ni izan nintzen ordezkaria. 90ean hauteskunde batzuk egin genituen, eta 26 pertsonak bakarrik eman zuten botoa, 8.000 abonaturen artean. Eta orain, botaziorik ere ez. Jendea ez da inplikatzeko, ikusten denez.

Batetik, oso garai kaskarra da. Uda da, jendeak patxada nahi du, lasaitasuna. Jendeak ez du ardurarik nahi, erakunde eta horrelakoetan parte hartzerik, ez du loturarik nahi. Beste aldetik, AUKEAko juntan 10 pertsona dira, 5 politikoak, 3 kirol taldeetakoak, 1 kontseilu eskolarrekoa eta bakarra erabiltzaileena; eta orduan, jendeak akaso esango du hori karamelotxo bat dela, testimonialki eginda dagoen zerbait. Nik erabiltzaileei plaza gehiago ematea proposatuko nuke, kuotekin bakarrik AUKEAren %26 ordaintzen dute, esplotazioagatik ordaintzen dutena kontuan hartu gabe. Baina ordezkatzeko orduan ez dago proportzio hori.

Jendeak, erabiltzaile eta kontsumitzaileok, gure protagonismoa behar dugu, bestela gure asuntoak besteen eskuetan uzten ditugu, eta gero kexatu egiten gara. Baina parte hartzeko aukera daukagunean, indarra egiteko, gauzak erabakitzeke, ez dugu parte hartzen. Igoal izango da jendeak uste duelako gauzak ondo egiten direla, baina.... Edo igoal izango da, hainbeste kexu eta gero, erantzunik jasotzen ez duenez, gauzak hobetuko diren esperantzarik ez daukala jendeak.



**Antton Fernandez**  
Kontsumitzaileen Bulegokoa.



- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

**93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKITA DAGO !**

Hurbil zaitez gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnok: 79 01 32 / 79 65 54  
OÑATI: Olakua, 14 Tfnok: 71 60 00



**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**UGARTE**

**Industri hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412

**• Txitxinpe •**


**Berezitasunak:**  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



**Mozkortuta gidatzen**

Bi gidari atxilotu zituen Ertzaintzak Arrasaten joan den asteburuan, errepideko alkoholemia kontroletan baimendutako alkohol neurria gainditzeagatik. Atxilotuetako batek istripua izan zuen autoarekin igande arratsaldean baina ez zen zauritutik izan gertakarian.



**Hezur aurkikuntza**



Astelehenean hezur gehiago azaldu ziren Roneoko obretan: eskeleto ia oso bat, beste baten hondakinak, eta errosario antzerako objektu batzuk. Aurkikuntza berriekin, konfirmatuta dago jadanik Roneoko fabrika zaharraren eta ibaiaren arteko zelaian hilerri bat egon zela, XVIII. mende bukaeraren eta XVIII.aren hasieraren artean. Hilerri hau, tifus kasu batzuk gertatu zirela eta ireki omen zen, 1795. urtearen inguruan, eta 1810. urtean, Arrasate tropa frantziarrek okupatuta zutenean, itxi zen. Hondakinak aztertzen Arkeolan elkarteko arkeologoak ibili dira, Gipuzkoako Diputazioaren enkarguz. Oraingoz, amaitu dira inguruan egin beharreko eskabazioak, eta ez da aurkikuntza gehiago izango oraingo.

**Uherkape: Udalaren jarrera**


Uherkapeko lanak hasteko baimena uztaile amaieran edo bestela irailean jasoko duela espero du Udalak, obrak berehala hasteko. Bergarako epaitegian bi eskaera aurkeztu ditu, batak Uherkapeko mendi magalaren egoera arriskutsua aitortzearen eskatzen du, eta bestea arrisku hori gelditzeko lanak hasteko baimen eskaera da. Obra horiek egitearen aurka daude Azatza Auzoa etxebizitza kooperatibako biztanleak, jakina denez. Udalak agiri batean zehazten duenez, Azatzakoek utzi beharreko ondasun batzuen gaineko erregistro inskripzioa lortzea espero du laster Udalak, horretarako dokumentu guztiak aurkeztu ondoren.

**Enpresa Berritzaileen Zentroa**

Arrasaten Enpresa Berritzaileen Zentro bat (EBZ edo CEI) eratzeko proiektua aurrera doa. Joan den astean berriro bildu ziren ideiarekin sustatzaile nagusiak: Jaurlaritzako industria eta ekonomia sailerako ordezkariak, Udala eta alderdi politikoak, Saiolan zentroa, Eskola Politeknikoa, Cegasa enpresa eta MCC taldea.

Zarugalde, 28  
etxabea



- Hilabetero: kamiseta, CD eta LP bat zozkatzen dugu.
- 600 artikulu baino gehiago deskontuekin!

- Diskoak
- CD
- Bideoa
- Dr. Martens
- Larrua
- Musika tresnak
- Kamiseten estanzazioa





M. KARMEN MENIKA \*

# UEUko aukera erakargarria

**Udako** Euskal Unibertsitateak (UEU) bere XXI. ekitaldia burutuko du aurten uztailaren 19tik 31ra bitartean Iruñeko Larraona Ikastexean.

Aurtengo edizioan 24 ikastaro desberdin eskainiko ditu: Antzerkilaritza, Bertsolaritza, Musika, Filosofia, Historia, Kazetaritza, Pedagogia, Psikologia, Soziolinguistika, Soziologia, Zuzenbidea, Glotodidaktika 1, Glotodidaktika 2, Ikasketa klasikoak, Itzulpengintza, Linguistika, Literatura, Natur Zientziak (Biologia eta Geologia), Osasuna, Fisika, Informatika, Laneko Euskara eta Matematika. Horieta, 13 astebetekoak dira eta 11 bi astekoak. Aurten, ikastaro berri bi ditugu. Batetik, Ikasketa klasikoak: Latina euskaraz irakasteko baliabideen ezagupidea eta lanketa (bereziki BBB eta UBI irakasleei zuzendua); beste-

tik, Itzulpengintza ikastaroren 1. astean itzulpengintzaren ikuspegi orokorra emango da eta 2. astean hiru aukera desberdin eskainiko dira: a) itzulpen juridiko-administratiboa, b) itzulpen dibulgatiboa eta c) interpretaritza.

Ikastaroen gain, saio osagarriak izanen dira arratsalde eta gauetan. Aurtengo edizioaren sarrera hitzaldia Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi emango du "Euskara batuak 25 urte: garai hartako zenbait zantzu". Hori aprobetxatuz, ma-

.....  
***“Oraindik. uztailaren bigarren hamabostaldia planifikatu gabe baduzu, UEUk aukera zabala eskaintzen dizu”***

haingurua egingo da gai horren inguruan eta beste zenbait hitzaldi ere bai. Hala, gauez, antzerki-saioa, musika klasikoko emanaldia, bertso-saioa eta beste zenbait ekitaldi egonen dira.

Udako euskal Unibertsitateak 23 milioitako aurrekontua zenbait Institutuzioen subentzuekin kontatzen du, besteak beste: Nafarroako Gobernuarena, Eusko Jaurlaritzarena, Europako Komunitatearena, Gipuzkoako Diputazioarena eta beste zenbait udaletzek emandakoak.

Oraindik, uztailaren bigarren hamabostaldia planifikatu gabe baduzu, UEUk aukera zabala eskaintzen dizu, unibertsitate-mailako gaiak euskaraz lantzeko, arlo horretan aritzen den jende berria ezagutzeko eta euskara hutsez 15 egun igarotzeko.

\* UEUKO IDAZKARIA

JOSE RAMON ELORTZA

## USTEAK USTE

### GARAI EDERRA!

**Une zailtan ez zaigu gaizki etorriko gauza onak ere gogoraztea. Hor non dauzkagun laster urteko oporrak, adibidez. Planak egiteko ordua da. Amets egitekoa, kanpora joateko garaia. Edota Portalo inguruan lasai egoteko garai bakarra. Hainbat jenderentzat kirol garaia. Txirindularitza eta horrek dakartzan kinielak eta eztabaidak. Indurain anaien garaia. Mikel eta Pruden. Telebistaren arrakasta. Pilota partiduak han eta hemen: Retegi, Galartza, Arretxe. Nafarren garaia, ikusten denez. Estropaden garai ere bai: Orio edo Donibane, San Pedro eta Hondarribi, eta Arraun. Mendira joan eta natura gozatzeko ordua. Eta... jaien garaia. San Juanak eta andramaixak, sanferminak eta saniñazioak, blankak eta aste nagusiak. Garai alaiak, kalea sekula baino beteagoa. Ume eta gazteen oporrak. Denen garaia. Kanpora afaltzera bultzatzen gaituzten arratsalde luze horien garaia. Baina, baita gurekin ez daudenak gogoratzeko uneak ere. Edota gaizki pasatzen eta sufritzen daudenekin ez ahazteko garaia. Irakurtzeko garaia. Azkenean, norberarentzako garaia. Helduko da iraila berri ere. Iraila zoragarri bat, eginiko amets horiek betetzeko garaia. Ondo ibili!**

Zurgin Kantoi, 2  
Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK  
ANGELA UNZUETA  
Novecentoesklusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie  
DENDARABA  
Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ





Korporazioa eratzea erabaki zenetik egin den lehenbiziko Kongresua izan da hau.

## MCCren egitura finkatzeko urratsak IV. Kongresuan

Ostegun eta ostiral honen bitartean burutu da Aita Menniko egoitzan Kooperatiben IV. Kongresua. Kooperatiben taldea Mondragon Korporazio Kooperatiboan (MCC) transformatu zenetik egindako lehen kongresua izan da. 373 ordezkari hartu dute parte Kongresu honetan, eta hiru alor nagusi ziren eztabaidetan tratatu beharrekoak.

Puntu garrantzitsuena 1993tik 96rako enpresa-politikoak markatzea izan da. Aurrikuspenen argitan, MCCko arlo nagusien artean banaketa arloak (supermerkatuena) ezagutuko du hazkunde handiena. Aktibitate konkretuek gain, Kongresuan oinarritzeko helburuak markatu dituzte, eta hain zuzen ere, bost markatu dituzte hurrengo hiru urteetarako: bezeroaren satisfakzioa, enpresa-errentagarritasuna, internazionalizazioa bultzatzea, garapen enpresariala eta enplegua sortzea. Langintza bezeroaren ikuspuntutik indartzeko joera hau, Jose Ignacio Lopez de Arriortua enpresari bizkaitarraren

teoria ekonomiko ezagunenetarikoa da, eta MCCko arduradunek Arriortuaren bide hori segitu behar dela aipatu izan dute.

Kongresuan ukitutako beste puntu bat Batzorde Iraunkor edo Kontseilu Errektoraren hautaketa moduaren aldaketa izan da. Kongresuen arteko erabakigune garrantzitsuena da organu hau eta gehienez 15 kidek osatzen dute. Lehen, kooperatibak eskualdeko zeuden antolatuta, eta hala aukeratzen ziren ordezkariak Batzorde Iraunkorrerako. Orain, aldiz, sektore ekonomikoen bitarteko ordezkatzeko sistema ezarri da.

Beste puntu garrantzitsu bat, infrazkoak arautzekoa izan da. MCCren parte diren kooperatiba desberdinen eskubide eta betebeharrak zehazten dira arau hauetan, barne kohesioa indartzeko. Oro har, MCC sortu zuen II. Kongresuan hasitako aldaketa prozesua finkatzeko Kongresua izan da IV. hau. Aurrerantzean, Kooperatiben Kongresuak sarriago egiteko asmoa dago, urtero edo.

### Kutsadura ala lurrina

Fagor Ederlan enpresaren Garagartzako lantegian kea azaldu zela eta, udaltzaingoak informe bat idatzizuen duela aste batzuk, ea kutsakorra izan zitekeen ke hori. Baina Ederlanetik erantzun dutenez, arriskurik gabeko lurrina besterik ez zen, lantegiaren inguruan kondentsatu zena eguraldiagatik. Udaltzaingoaren informea eta Fagor Ederlanen erantzuna Eusko Jaurlaritzako ingurugiro departamendura bidali dituzte, kasua han azter dezaten.

### Auto hilerria itxi

Kanpazarrerako bidean errepide inguruan dagoen txatarrategia ixteko agindua eman du Udalak, aste honetako Gobernu Batzordearen erabaki baten bidez. Auto eta ibilgailu zahar eta ugartuak pilatzen dira bertan, eta negozio hori ixteko ideia aspalditik izan du Udalak. Auto hilerriaren ugazabak txatarrategia zabalik mantentzeko prorrogak lortu izan ditu orain arte, baina Udalak baimen gehiago ez ematea erabaki du aste honetan, eta beraz, auto hilerria itxi egin beharko da, alegazio epea igaro ondoren.

Gobernu Batzordean, bestetik, azoka plazan komunak jartzeko lanak adjudikatzea ere erabaki zen, 2,3 milioi PTAko aurrekontuaz.

### Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

### TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioak  
Offseta  
Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

### Basabe jatetxea

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Industrialdea  
ARETXABAETA  
Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

### "PAL"

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Urizarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99





Saihesbidea egin zuteneko irudi bat. Oraindik ere, ikusi beharko ditugu obrak...

## Herritar-lantaldeak eratuko dira Maltzaga-Urbinarako

Maltzaga-Urbina autopistaren trazaketa aztertzeko lantalde partehartzaileak eratuko dira Deba Bailarako herrietan. Hala erabaki dute proiektu honen sustatzaileek Deba Garai eta Beheko alkateekin ea erakunde publikoekin Gasteizen asteazkenean egindako bilera batean. Arrasatek Xabier Zubizarreta alkatea eta Juan Antonio Urdangarin hirigintza saileko teknikaria joan ziren.

Autopistaren trazaketa aztertuko duten lantalde hauek zozketaz hautatutako 25 hiritarrez osatuko dira, eta beren zeregina autopistaren trazaketaren kalte eta ezaugarriak aztertzea izango da. Lantaldeez gain, gonbi-

datuta egongo dira trazaketak eztabaidatzera gainerako elkarte, aditu eta abarrak.

Oraingoz 16 trazaketa posible daude, eta taldeen eta mugimendu sozialen iruzkinak ere kontuan hartuko direla diote erakundeek, nahiz eta sujerentzia horiek ez diren binkulanteak izango.

Obra finantzatzeko Europistas enpresari Bilbo-Behobia autopistaren esplotazio epea luzatu egingo zaio. Europistasek 2003. urtera arte zeukan peajea kobratzeko eskubidea, baina orain, Maltzaga-Urbina egin truke, eskubide hori 2020. urtera arte prorrogatuko zaio.

## Max Centerreko epaiketaren geldiduna

Hilabete t'erdian darama geldi Max Center eskandaluko epaiketak. Mondragon Korporazio Kooperatiboak (MCC) Barakaldon irekiko duen zentro komertzial erraldoiaren inguruan txantaia kasua salatu zen joan den azaroan, eta akusatu nagusiak EAJko eta PSOEko bi zinegotzi dira, MCCri 100 milioko "komisioa" eskatu omen ziotenak. Epaitegian, Pedro Mendieta Max Centerreko zuzendariaren beste deklarazio bat espero da, baina uda pasa eta gero izango da hori, seguruena. Eskandaluan azaleratutako azken datueta-riko bat, PSOEko buruzagi batek MCCri bidalitako gutun bat izan da. Bertan Jose Luis Marcos Merino sozialistak azalpenak eskatzen zizkion kooperatiben taldeari, MCCk hasiera batean erru guztia PSOEko zinegotziari leporatzen omen ziolako, ez EAJkoari. Bestetik, Egin egunkariak argitaratu duenez, eskandalua publiko egin zuena PSOE bera izan zen, barne tirabira batzuk bideratzeko.



Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkariak eta osagarriak.



**IRAKASLE ESKOLA**

Eskoriatza  
Gipuzkoa

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

**1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela.**

**Espezialitateak:**

- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

**Informazioa**

Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57





Ikastetxearen goiko solairuan daude okupatutako etxebizitzak.

## Desalojorik ez, baina konponbiderik ere ez

Ferixalekuko etxe-okupatzaileen auziak konponbide barik segitzen du. Ikastetxea goitik behera erreformatu behar da ikastolaren behar berriei egokitzeko, eta dagoeneko hustik egon beharko luke, obrak has zitezen.

Udaletxeko gizarte-laguntzailearen bitartez, laguntza sozial batzuetarako eskubidea daukatela jakin dute okupatzaileek. Laguntza horien artean, pisu bat alokatuko balute, alokairua ordainduko liekete. Hala ere, okupatzaileek diotenez, oso zaila egiten zaie Arrasaten pisua aurkitzea, eta alokairu horren kargu udala egin dadila eskatzen dute orain. Etxe alokatuak aurkitzen ez duten

artean, Musakolako baju batean dagoen udalaren etxebizitza batera trasladatzeko aukera aipatzen dute okupatzaileek. Oraingoz okupatzaileak ez dira etxeetatik joango.

Okupez gain, beste hiru familia ere bizi dira Ferixalekuan. Biren trasladoa akordatuta dago, eta hirugarrenak ez du etxea utzi nahi, Hezkuntza sailetik hala agintzen dioten artean, behintzat. Udalak Hezkuntza sailerako erabakia laster iritsiko dela espero du. Nolanahi ere, auzia datorren astetik aurrera askorik ez dela luzatuko uste dute inplikatuak, beharbada konponbidearekin, beharbada okupen desalojoarekin.

## Ostiralez plenoa

Ostiral honetan plenoa izango da udaletxean, hilabete amaieratik aurreratuta, alkateak oporrak uztailearen 2. hamabostaldia- ren eta abuztuko 1.aren artean hartuko ditu eta. Gai-ordeneko puntuen artean, Kobateko sektoreko hirigintza planen aldaketa azaltzen da, Ferixalekuko ikastetxearen desafektazio eskaera egitea eta tabernen araudia- rentzako gehigarri bat onartzea.

## Informatika gela Monterronen

Zabalik dago dagoeneko Monterrongo Informatika Gela berria. Gela honek IMiko informatika zentroa itxi zenean izandako hutsunea beteko du aurrerantzean, lehen baino toki gutxiagorekin, baina ekipo berri eta aurreratuagoekin (IBM konpatibleak eta Macintoshak). Dozena bat erabiltzaileentzako lekua du eta uztailean goizeko 10etatik eguerdiko 1etara, eta arratsaldeko 4etatik 8etara dago zabalik. Irailtik aurrera, arratsaldeko 8.30etan itxiko da.



# OKORETEGI kafetegia

Juan Carlos Gerra Plaza. Tfnoa: 77 03 62  
ARRASATE





Arrasate Kirol Proiektuko 85 tza ugari praktikatzeko haurrek Bernedoko barne- aukera ezin hobea euki dute tegi batean pasatu dituzte ume zein irakasleek: golfa, 10 egun. Pasa den uztaila- zaldian ibiltzea, mendi eta ren 1ean irten ziren eta bizkleta irteerak, uretako jo- 10ean bueltatu. Kirol ekin- lasak...

**Pasa den ostiralean Gaztetxean eginiko kontzertuak arrakasta izugarria euki zuen. "Rich kids on LSD" talde amerikarra izan zen gonbidatua eta Euskal Herrian eskainitako kontzertu bakarra izan zen. Gaztetxeko partaideek barkamenak eskatu nahi dizkiete inguruko bizilagunei, amerikarrak berandu heldu eta berandu bukatu baitzen kontzertua.**



Ibai Artek antolatutako lora tza. Geranioak, klabelinak, lehiaketako irabazlea Maala petuniak, kanpanulak eta bes- kaleko 7. zenbakia izan da, te lora eder batzuk ikus dai- Consuelo Larreina eta Patri- tezke oraindik ere balkoi ho- zio Balanzategiren etxebizi- rretan. Zorionak!



**AEDko San Juanetanko Zubillagak irabazi du tonbolako zenbaki eta lapiko jokua Loli sarituak kaleratu Zeziagak. Bizikletaren genituen, eta irabazleak irabazlea ez da agertu; leak hauek dira: kan- gogoratu saritutako ping denda Roberto zenbakia 4.389 dela.**

**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana, 12  
ARETXABALETA**



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak akzesorioak**

**Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25**



**IZEN PROPIOAK**



**Ostiraleko ONCEren kupoitzarraren zozketan, Joxe Irazola arrasatearrak 155 miloi pezeta irabazi zituen. Horretaz gain, beste 95 miloi ere Arrasaten geratu dira, azken hauek 5 miloitako boletoetan banatuta. Saltzailea Miguel Hernandez izan da oraingoan. Zerbait tokatu zaizuenoi, zorionak!, eta besteoi, hurrengoan tokatuko zaigu.**

● Pasa den igandean Aretxabaletan burututako toki ageriko pintura lehiaketan, **Gorka Zubizarreta** arrasatearrak gazte mailako lehen saria irabazi zuen. Helduen mailan berriz, **Joseba Andoni Urisabelek** lortu zuen lehen postua.

● **Miguel Angel Antelo Pujanek** eginiko kartela izango da Aretxabaletako Andra Mari jaiak iragarriko dituen. Guztira 40 lan aurkeztu ziren eta Miguel Angelek 35.000 PTA jasoko ditu.

● **Goio Arana, Edu Arana, Joxe Aranzabal** eta **Jose Felix Diaz de Tuesta** arrasatearrek Udako Euskal Unibertsitateko kazetaritza sailean hitzaldi desberdinak emanango dituzte datorren 26, 27 eta 29an.

**Markos Elorzak** (63 urte) eta **Julian Aranzabalek** (79 urte) omenaldi berezia jaso zuten Aramaioko Arraga auzoko jaietan. Urte askoan oso soinu-jole ezagunak izan dira eta ondo merezitako omenaldia egin zioten: meza, dantzariak, trikitixa, bazkaria... eta plaka bana ere eman zieten.



**M** Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**ARENAZA**  
Bizkaia, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

**IBARRA**  
**Garajea S.L.**  
 **EBRO**  
**NISSAN**  
Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

  
Liburu eta papedenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikulua  
Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



## SUKALDE LILURAGARRIAK!

### SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 00 43  
Ipeñarrieta, 5  
**URRETXU**  
Tfnoa: 72 50 75

### BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 99 42



# ● *Beatriz Arzamendi* Musikari estirpearen emaitza

**Txikitatik musika ikasten aritu da Beatriz, Arrasate Musikaleko zuzendari ohiaren, Juanito Arzamendiren alaba; aurreten orkestrako zuzendari tituloa lortu du.**

— Noiz sartu zinen musika munduan?

— Uste dut beti egon izan naizela musika munduan sartuta. Orain dela 20 urte Arrasate Musikalen hasi nituen musika ikasketak, Akademia sortu zenean, gutxigorabehera. Solfeo, biolina eta beste musika tresna batzuk jotzen ikasi nuen. Ondoren, Donostian jarraitu nituen musika ikasketak eta gero Londresen. Londresetik berriz Madrileratu bueltatu eta instrumentista karreratu eta konposizioa ikasten hasi nintzen. Modu honetan sartu nintzen zuzendaritzan. Musikako karrera luze hau orain lortu dudan orkestrako zuzendari tituloarekin amaitu dudala esan daiteke.

— Zergatik aukeratu zenuen konposizioa eta gero zuzendaritza?

— Konposizioa beti ba-

rruan eraman dudan zerbait da, beste musikari batzuk instrumentista izatearekin konformatzen diren bezala, nik beti eraman dut barruan zuzendaritza eta nirea den zerbait idazteko eta konposatzeko irrika. Orkestra baten aurrean jarri nintzen lehen aldian, “hau bai dela nirea” esan nion neure buruari.

— Obra asko konposatu duzu?

— Askok. Batzuk estreinatuta dira jadanik, beste asko oraindik estreinatuta gabe ditut. Konposizioa ikasten egon naizen lau urteetan obra ugari konposatu dut: abesbatzarako abestiak, kordako laukoteentzako abestiak, txeloentzako sonatak, pianorako abestiak, orkestra sinofikorako suiteak... Askok estreinatuta gabe daude eta nire helburua, guztiak estreinatzea eta orkestra bat sortzea da.

— Zure aita ere orkestrako zuzendaria izanik, zer iritzi duzu berataz?

— Nola eman dezaket nik horri buruzko iritzia? Niretzat aita beti izan da niretzat idea-



la, nire musika ikasketetan pieza garrantzitsua. Horretaz ezin naiz objetiboa izan, ezin dezaket iritzirik eman; nire aita zoragarria da niretzat. Askotan, Arrasaten nire aita oso ezaguna denez, berekin konparatzen naute. Gurasoek inoiz ez naute presionatu musika munduan sarraren, ezta txikitari ere, gustoz sartu nintzen eta horrela jarraitzen dut.

— Emakume izateak oztoporik jarri dizu musika munduan?

— Konposizioan ez, baina bai zuzendaritzan. Egia esan, inoiz ez diot garrantzi gehiegirik eman puntu horri. Zuzendaritza ikasten nengibela, orkestra zuzentzeko orduan ez zen gauza bera mutil batek edo neska batek zuzentzea. Badirudi, emakumeok demostratu egin behar dugu-

la gure balioa. Hasieran ondo egiteko gai zaren zalantza dute guztiak, horregatik demostratu egin behar duzu benetan lan hori egiten badakizula.

— Arrasate Musikaleko zuzendari izatea proposatuko balizute, zer?

— Puf! Nire aita jubilatuta zenean, gauza bera galdetu zidan berak eta egia esan, Arrasate Musikaleko orkestra desagertzeko zorian egongo balitz, noski onartuko nukela, ez nuke inolako eragozpenik izango, baina baldintza batzuk jarriko nituzke aurretik, entsaietarako, batez ere.

— Aurrera begira proiekturik?

— Orkestra bat izatea gustatuko litzaidake. Horretarako, jende gaztea edo musika munduan karrera bukatu eta hastea gustatuko litzaienak aukeratuko nituzke. Horretaz gain, formazioarekin jarraituko dut, gustoko ditudan zuzendariarekin ikastaroak egiten eta abar. Irteera ez da erraza eta are gutxiago emakumea izanda.

● **“Gaur egun orkestrako zuzendariok nahiko etorkizun iluna dugu, eta are gehiago emakumea izanda”**



# Oporrak Seaskari laguntzen

## Arrasaterak Kanboko ikastegia osatzen

Rosa Mondragon

**AEDk aurten antolatu ditu lehen aldiz udako auzolandegiak. Iparraldeko Lapurdiko Kanbo herrian dagoen Xalbador ikastegian, ikasgela eta barnetegi berria eraikitzekotan dabilza ikastolako guraso eta irakasleak, eta auzolandegi hauen bidez, baita AEDko neska-mutikoak ere. Muga pasatu eta goiz batean Kanboruntz abiatu gara gu ere.**

Goizeko 7.30etan jaiki dira AEDko neska-mutilak. Jadanik 10.30ak dira eta eguzkiak duen indarrarekin eta dagoen eguraldi beroarekin, izerdi batzuk bota dituzte oraingoz. Lehengo inpresio batean egiteko dagoen lan ugariaraz ohartu gara eta horretan ari dira mondrauetarrak. Talde desberdinak egin dituzte euren artean, egin beharreko lanaren arabera: "orgattoa edo eskorga" (karretila) hartu eta "brikak" (ladriiloak) garraiatzen, "betonerian" (hormigonera) zementoa egiten, orma berriak eraikitzen, elektrizitatea sartzeko orman zuloak egiten, mahaiak konpondu eta garbitzen...

Ez dira neska-mutil arrasatearrak ikastolako obra hauetan lanean ari diren langile bakarrak. Irakasle, gura-



Talde arrasatearraz gain, guraso eta irakasle batzuk ere egunero joaten dira lanera.

so eta ofizioko langileak ere hor dabilza, irailerako behar beharrezkoak diren bi pabiloi berriak eraikitzeko lanetan. Nesken taldeak, bi Saiokak, Isabel eta Amaiak ladriloak garraiatzen dituzte, Anerrek morteroarekin ormako zuloak betetzen ditu, Liher, Igor eta Ugutzek, argi indarra sartzeko tokia egiten ari dira orma batzuetan eta Danel inguruko belarra mozten ari da. Hauek lanean ari diren bitartean, sukaldean Leirek bazkaria prestatzen du. "Bistan dago, oraindik lan asko dago egiteko. Goizero ahal dugun neurrian laguntzen saiatzen gara, nahiz eta hasieran, gauza asko egiteko ikasi beharra izan" esaten digu Danelek.

Zorte txarra izan zuen Leirek, heldu eta bigarren egunean bizikletatik erori eta esginzea du hankak. Astebete bendeekin egon beharko du eta bitartean, beste Leireri laguntzen dio sukaldean.

### ZERGATIK KANBO?

AEDk aurten antolatu ditu lehen aldiz udako auzolandegiak. Seaskari lagundu, oporretako bide edo modu desberdina eskaini eta Iparraldeko gizartea, bizimodua, eta kultura ezagutzeko asmoarekin, Xalbador ikategiko guraso batzuekin jarri ziren harremanetan, izan ere, bera da Iparralde osoan irakaskuntza ertaina euskaraz eskaintzen duen zentro bakarra. Hori

dela eta, zabaldu zenean eta baita gaur ere, arazo latzak dituzte aurrera jarraitzeko.

### IKASTOLAREN HISTORIA

Orain dela 13 urte Seaskako lehen Lizeoa sortu zen, oraindik oso ikasle gutxik ikasten zuten Batxilergoa euskaraz. Piskanaka, gero eta ikasle gehiago animatu zen euskaraz ikastera eta orain dela zazpi urte etxe handi hau alokatu zuten, oraindik ere toki falta nabaria somatu zen eta denborarekin hori ere txiki geratu zen. Hori dela eta, alokatutako etxe honen inguruko terrenoan, etxe berriak eraikitzen hasi ziren eta duela hiru urte lehen pabiloia bukatu zuten. Bertan, liburutegia,




ordenagailu gela eta ikasleen gelak kokatu ziren. Momentu honetan, obretako azken fasean sartu dira. Pabaloi berriko lehen solairuan klaseak eta bigarrenean barnetegia egiteko asmoa dute. Obra eta eraikuntza berri hauekin, 3 urtetatik 18 urtera bitarteko euskarazko ikasketak eskainiko ditu Xalbador ikastegiak. "Azken finean, ziklo osoa finkatu eta normalizatu nahi dugu, aurrera jarraitzeko segurtasun bat behar dugu, euskaraz ikasteko interesa duten ikasle gehiago onartzeko segurtasuna" komentatzen digu Gillermok, ikastolako guraso eta diruzainak. Aipatu bezala, ikasleen kopurua gero eta handiagoa da, orain dela bi urte 210 ikaslek ikasten zuten Xalbador ikastegian, iaz 260k eta aurten 300 espero dira.

## OFIZIALKI ZENTIMORIK ERE EZ

Ikastolaren sorreran, etxea alokatzeko, obra berriak aurrera eramateko, eraikuntza berrietan... ez da ofizialki zentimorik jaso. "Hezkuntza nazionalak, orain arte ez du normalizatu nahi izan euskal hezkuntza hau. Beraientzat oraindik ere bereziak gara, eta egia da bereziak garela, baina ez dakit, terroristekin erlazionatzen gaituztela uste dut" azaltzen du Gillermok.

Ikastegia eraikitzekeo dirua bilatzea ez da bat ere erraza izan. Hasiera batean mailegu bat eskatu zuten bankuan, oraindik ere ordaintzen ari direna. Horretaz gain, herriko jendeari ere 1.000 liberatako mailegua eskatu zitzaion, 1999 urtea baino lehen ordaindu beharko dutena. Baina dudarik gabe, diru iturri inportanteena Herri Urrats jaia da. Aurten 50 miloi pezeta jaso dira eta, funtsezko lagutza eskaintzen die horrek.

Baina arazoak konpontze bidean daude. Gobernu frantziarrak aste honetan eginiko



Goizez obretan lagundu eta arratsaldetan inguruko herriak eta ohiturak ezagutzeko aprobetxatzen dute.

adierazpenek diotenez, flandiarrek, eskoziarrak eta euskaldunen kulturak onartzea erabaki du. Eta ez onartzea bakarrik, laguntzak ematea ere erabaki duela esaten du ohar horrek. Beraz, orain arteko jarrera aldatzear dagoela dirudi, aurrerantzean ikusi behar.

## OBRAK IRAILERAKO BUKATU BEHAR

Irailen hasiko da kurtso berria Xalbador ikastegian eta 300 ikasle espero direnez, ordurako bukatuta egon beharko dute obrek. Horrela, 60 ikasle inguru barnetegian sartuko dira eta 240 gutxigora-behera egunero etorriko dira.

Ikastolako guraso eta

irakasleez gain, arrasatearrak heldu aurretik, flandarrak ere ibili dira laguntzen. Eta egunero, guraso eta irakasle desberdinak hurbiltzen dira ikastolara, obrak nola doazen ikusi eta ahal den neurrian laguntzeko. Batzuk egunak pasatzera etortzen dira eta azken finean guraso gehienak hartuko dute parte ikastolaren eraikuntzan.


## ARRATSALDEAK DENBORA LIBRERAKO

Goiz partean ikastola eraikitzekeo lanetan ibili ondoren, bazkaldu eta arratsalde partean denbora librerako eta ingurua ezagutzeko, ohiturak, bizimodua, ideologia... ezagutzeko aprobetxatzen dute

AEDko neska mutilek. "Lehen egunean bizikleta irteera egin genuen; atzo adibidez, hemengo kultur elkarteak antolatu duen erakusketa bisitatu genuen eta asteburuan inguruko herri bateko jaietan ere ibili gara, egia esan primeran pasatu dugu. Euskararen alde lan egiteaz gain, hemengo herri eta ohiturak ezagutzeko aukera ezin hobea iruditzen zaigu" komentatzen digute guztiek.

Erreportai hau irakurtzen duzun unean, 18 gazte arrasatear motxila prestatzen ariko dira seguruenik, igandean bertan Kanboruntz irteteko. Eta abuztuko txandarako ere beste 30 gazte animatu dira. Ez dira gutxi, ezta?





Udaletxean izan zen Mondraren biltzarra asteartean.

# Mondraren defizita zortzi milioi pezetara iritsi da

**Mondragon** Futbol Taldeak onartutako aurrekontu barik hasiko du datorren denboraldia. Aste honetan burututako urteroko biltzar nagusiak zuzendaritza batzordeak aurkeztutak dirukontuetan, aurrikusitako gastuak 15.250.000 PTakoak dira, eta sarrerak 14 milioi PTA bakarrik. Beraz, 1.250.000 PTako defizita aurrikusten denez, hori zuzendu arte aurrekontuak onartu gabe geratuko da Mondra. Dena den, direktiba baikor azaltzen da, eta abendurako balantze orekatua aurkeztea espero du.

Biltzarreko aipagai nagusiak ekonomikoak izan ziren. Kirol arloan, balantze baikorra egin zuten zuzen-

daritzakoek eta sozioek. Denboraldian egindako papera txalotzekoa izan zela aipatu zen, eta hurrengo urterako baja eta alten berri eman zen. Indargarri Ramon eta Madina etorriko dira, eta seguru aski Leiba. Baja izan direnak, Julian, Garro Lehena eta Txosa, azken hau belaueneko lesioagatik.

Emaitzen aldetik, play-off-ekoak izan dira puntu beltz bakarra, kasu honetan zulo ekonomikoa handitzen ere lagundu zuelako azken fase horrek: 140.000 PTA galdu ziren, denboraldiko defizita guztira 1.300.000 PTAtan jarritz. Honekin, zortzi milioi PTA zorra akumulatua dauka klubak, eta horren interesak ordaintzen

milioi bat pezeta inbertitu behar ditu taldeak. Egoera honen ondorioz, hurrengo denboraldirako sozioen kuotak 500 PTA igotzea erabaki zen biltzarrean, 8.000 PTA sarrera arruntentzako eta 10.000 tribunako tokientzako.

Argi daude zeintzuk diren defizitaren arrazoiak: ez da gastuak gora doazela, sarrerak behera doazela baizik. Gastuak murrizten saiatzen ari da kluba aspalditik, erronka nagusia Atxabalpeko takiletan dago. Zaletuen erantzuna da kakoa. Edozela ere, Jose Luis Ezkurra lehendakaria eta klubeko gainerako buruak gogotsu daude taldearen ardurarekin segitzeko.

## LABURRAK

### Zilarrezko domina igerian

Arrasate Igeri Taldeko Aritz Arrieta igerilariak zilarrezko domina lortu zuen Gipuzkoako Txapelketan, 50 metro libreetako frogan. Ordizian ospatu zen txapelketa hori joan den larinbatean, eta horrez gain, oso marka onak lortu ditu Arrietak Gipuzkoako Txapelketan.

### Monteko txirrinduzaleen kiniela

Iaz arrakasta handia lortu zuen Monte tabernako Tourreko kinielak eta marka guztiak hautsi ditu oraingo honetan: 235 posturazalek hartzen dute parte, eta sari nagusia 705.000 PTakoa izango da Tour amaieran, 2. saria 352.500 PTakoa eta 3.a 117.500ekoa. Alpeetako lehen etaparen ostean, kinielan liderra Joxebi Ramos kazetaria da, 542 punturekin. Ostean, Juan Mari Huiziren bi kinielak doaz, 531 punturekin biak. ATBko gure kideak *gruppetto*-an doaz, 389 punturekin.

### Futbito maratonia Uribarrin

Uribarri auzoko San Bartolome jaien inguruan, larunbat eguerditik igande eguerdira arteko futbito txapelketa maratonianoa ospatuko da. Dena den auzoko jaiak ez dira asteburu honetan, hurrengoan baizik.



## ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

### Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

## ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



# EGA

## ● IKASTARO TRINKOA ●

Irailaren 1etik 21era

1. EGAREN atarian daudenentzat (maila honetarako gutxi falta zaienentzat).
2. Goizeko 8etatik 13.30etara (30 minutuko atseden-a).
3. Atariko froga irailaren 10ean Euskaltegian bertan egingo da.
4. EGA azterketa idatzia 23an izango da eta urriaren 13an ahozkoa.
5. Guztira 75 ordu izango dira.
6. Matrikula: 4.700 PTA. Materiala: 1.500 PTA.
7. Izena emateko **epea uztailaren 16an bukatuko da.**
8. Informazio gehiago 79 70 77 telefonora deituz (Arimazuri, 2).
9. EGArako deialdi itxirako matrikula uztailaren 19tik 23ra egin behar da Udal Euskaltegian.

**UDAL EUSKALTEGIA**

Arimazuri, 2  
Tfnoa: 70 70 77





CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten  
hasiera baino ez da,  
profesionaltasun garbiko  
bidean.**



**Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-  
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.  
Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta  
aholkamendu- maila.**

**Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak  
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.**

**Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-  
biko bidean.**



# Jan-neurria (eta II)

Adina (urtetan)	Mutilak (kaloriak)	Neskak (kaloriak)
1	800	800
1-2	1.100-1.300	1.100-1.300
2-4	1.300-1.500	1.300-1.500
4-6	1.500-1.700	1.500-1.700
6-8	1.700-1.900	1.700-1.900
10-12	2.200-2.600	2.200-2.600
12-18	2.600-3.600	2.400-3.400

**Ikusten** denez, atsedene-egoera batean gizonezko batek 2.700 kalori behar ditu egunero, eta 600 bat gehiago lanarengatik. Guzti hori segurtatzeko, pertsona heldu osasuntsu baten eguneroko probisioak proteina, lipido eta karbohidratoak neurri batzuen barnean gorde behar ditu: 80-120 gr. proteina, 50-70 gr. lipido eta 350-500 gr. karbohidrato hain zuzen.

Dieta edo jan-neurria egokia izateaz gain, osasuntsua ere izan dadin, iradokizun batzuk eman daitezke:

1. Jaki prestatu edo ontzitaratu gutxiago jan.

2. Barazki gehiago eta animalia jaki gutxiago jan.


3. Hondakinetan aberatsak diren janari gehiago jan.

4. Gantz gutxiago, eta bereziki animalia-gantz gutxiago jan.

5. Gantz gutxiago ahoratu.

Beti ere kontutan eduki behar da tentagarrienak gutxien gomendatzen diren produktuak direla: janari gaiztuak, gozoak (azukrea) edota esnekien (gantz gehiegi).

**MIKEL ETXEBARRIA,  
MEDIKUA**



# LASAGABASTER

## MERKEALDIK!!!

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



# BENGOA

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

Zerkaosteta, 5 ARRASATE  
Tfnoa: 79 28 85

# AE ELKORO

**OBRENGATIK LIKIDAZIOA GURE PRODUKTUETAN!!!**

Pletina bikoitzeko  
**SAMSUNG** irrati  
kassete esteroa

**5.900**

**Sonitrom**  
14" telebista

**19.900**

**Colmatic (FAGOR)**  
labadora

**32.900**

**Bizarra**  
mozteko makina

**4.500**

**Ilea**  
lehortzekoa

**1.100**

**SAMSUNG**  
mikrouhina


**12.800**

Olarte, 1 ARRASATE

**... ETA BESTE ASKO!!!**

Akats tipografiko edo  
generoa amaizte kasuan salbu.





ondrauetarrak dira baina Mondrauetik kanpo aterata dago erretatu hau. Eta ederki antzematen da non dagoen, gainera. Donostiako Kontxa Hondartza erraza da ezagutzen, eta baita irla ere. 1966ko uda zen. uztailearen 13a hain justu, eta **Fray Rufinok** eskurtsioan eraman zituen herriko mutiko hauek. Rufinoren eskuman dagoena **Jesus Auzmendi Ayerbe** da eta ezkerrekaldekoa, berriz, **Danel Garai Bengoa**.

Bi mutiko horiek Arantzazuko Seminariora joan ziren urte hartan, eta esan digutenez, hara sartu aurretik eskurtsioan eraman zituen Rufinok, Donostia ikustera, eta ez dakigu aurrez ezagutzen zuten. Sasoi hartan mutiko asko joaten zen Arantzazura ikastera, eta urte hartan ere izan ziren mordoxka bat, aipatutako biez gain, honako hauek: **Iñaki Juaristi Kerejeta, Bixente Bakero Mora, Enrike Iñurritegi, Jose J. Ariza-**

**baleta San Migel, Iñaki Gaztañaga Txintxurreta, Jose Mari Lasaga Eriz, Juan Ramon Argarate Azkarate, Iñaki Arejola-leiba Villar eta Luis Mari Heriz**, aramaixoarra izan arren Arrasaten bizi zena, 12 lagun guztira.

Alboko banatan dauden mutikoak, ezkerrekoa **Nafarrate**, eta eskumakoa **Juanjo Bragado**. Azken hau 14 urterekin hil zen. Monagilo ibiltzen ziren biak.



Mondeo

**MUGARRI**

Mondeo



**Barruko indardun edertasuna**

**Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.**



**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Etxebizitza salgai edo alokairuan.** 90 m<sup>2</sup> despatxua jartzeko oso aproposa. Tfnoa: 79 64 50.
- **Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da.** Tfnoa: 79 45 74.
- **La Bastidan duplexa salgai.** Tfnoa: 79 65 39.
- **Etxebizitza alokatzen da Donostian,** uztaila, abuztua eta baita ikasleentzat ikasturtean zehar ere. Tfnoak: 71 50 87 eta 71 4002.
- **Eskoriatzan etxebizitza amueblatua alokatzen dut.** Tfnoa: 79 87 26.
- **Garaje plaza bat alokatzen dut.** Tfnoa: 79 79 12.
- **Irailan etxebizitza alokatzen da Ezkarain.** Tfnoa: 79 31 56.

**Lana**

- **Uztailean OHOk klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Uztailean OHOk klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 05 59. Oskar.
- **Ekonometriako klase partikularrak ematen dira uztailean.** Tfnoa: 79 40 87. Miren.
- **Marrazketa tekniko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 65 84. Leire.
- **Neska esperientziadunak umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.

- **Lizentziatu esperientziadunak ingeleseko klase partikularrak emango lituzke uztailean.** Tfnoa: 79 26 21. Ane.
- **Uztailean ingelesezko klase partikularrak ematen dira.** Dei egin goizetan 77 05 77 tfnora.
- **Ingelesezko filologoak logikako klaseak hartuko lituzke uztailean.** Tfnoa: 79 35 56. (Maitete).
- **O.H.O., Batxiler eta ingelesezko klase partikularrak ematen dira uztailean.** Tfnoa: 79 04 76.
- **Etxeko lanak egiteko neska behar da.** Deitu gaueko 8etatik 10etara. Tfnoa: 77 07 33.
- **Uztailaren 15etik aurrera eta irailaren hasiera arte,** OHO eta UBko klase partikularrak emango nituzke. Deitu 79 46 75 eta 79 23 36.
- **Matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak ematen dira uztaila-abuztuan.** Tfnoa: 79 25 37.
- **Sukaladaria behar da Santanderreko Nojan** taberna baten lan egiteko. Udako denboraldirako. Tfnoa: (942) 63 01 31.

**Salerosketak**

- **Ezkontzeko soinekoa salgai,** buruko apaingarri eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motzaz. Neurriak: luzeera 165 zm. bularra 85 zm eta gerria 68 zm. Prezioa: 80.000 PTA. Probatzeko, dei egin 76 17 81 edo (945) 24 32 55 tfnora.

- **Fagor markako sukalde berria salgai.** Bi su eta bi elektriko dauzka. Gas naturalekin erabiltzeko. Oso prezio interesgarria. Tfnoa: 79 38 16. Gaueko 9etatik aurrera.
- **Ziklomotorra eta korredore bizikleta salgai.** la erabili gabeak. Prezio onean. Tfnoa: 78 10 41.
- **Citroën AX, GT hobekuntza askorekin salgai.** SS-AH. Tfnoa: 78 33 09.
- **Hiru berogailu, hiru negua pasatzeko epelean nik saltzen ditut modu onean!**
- **Kerosenozko berogailu bat** "Corona FH 5540 S Big-Inventer" markakoa.
- **Butanozko bat** "Delonghi" markakoa.
- **Eta elektriko bat** "Delonghi Caldovelto" markakoa. Behar izanez gero, jo 78 05 72 tfnora. eta egingo xuagu/xonagu tratua.
- **Paseoko bi bizikleta salgai.** Egoera onean eta merke. Deitu 79 71 59 tfnora. Iñaki.
- **Kotxea salgai:** urrian erositako Renault Clio bat. Garantian dago. Tfnoa: 79 13 88 (Lorea).

- **Mar-Puma markako karro-denda salgai.** Bi urte ditu (60 egun erabilia). 2 logela, abanzea, arkoia eta serbo-frenoa. Tfnoa: 79 76 07.
- **Opel Kadett 1.6. S salgai.** Matrikula SS-Y. Tfnoa: 76 00 39.

**Denetarik**

- **Martitzen 13an** goizeko 10etan Zentro Asistentzial eta Anbulategi tartean dagoen telefonoaren Kabinan Kartera bat utzi nuen ahaztuta. Norbaitek aurkitu badu, deitu 79 17 88 Tfnoa. Karmen.

**Aste Gazte**

**Bekak**

• Herri administrazioaren arloan prestatu eta ikertzeko lankidetzak bekak. HAEE-IVAPek deituak. Baldintzak: Zuzenbidea, Zientzia Politikoak, Soziologia edo Psikologia ikasketak 91 urteaz geroztik amaitu izatea. Epea: uztailek 22.

**Aterpe txartela**

• Oporretan aterpeak erabiltzeko asmoa duzuenok, ez ahaztu aurtengo txartela es-

kuratu behar duzuela lehena-go. Horretarako, ohi bezala, Gasteiz, Bilbo nahiz Donostia joan behar, 2 argazki eta 500 PTA (erdia Gazte Txartelarekin).

**Oporraldia**

• Diputazioak antolatutako egitarauaren barruan, ekintza mota ezberdinak praktikatzeko aukera dago: mendi bizikleta, kainoi jeitsiera, kayak, piraguismoa, eskalada, parapentea,... inte-

resatuek lehenbaitlehen eman behar dute izena.

**Ikasletak**

• Behar izanez gero, estatu mailako Fakultate eta Unibertsitate Eskola guztietako helbide eta telefonoak dauzka-gu Gazte Bulegoan.

**Lehiaketak**

• Mendaroko Jendeaurreko IV Margo Sariaketa. Uztailearen 24ean. Lanen zigidadura: lehiaketa egunean, goizeko 9etatik 10etara.

**"Zahar diren gazteak dauden bezalaxe, ni zahar gaztea naiz"**

**FLORENTINO USSIA,**  
**(93 URTETAKO LAUDIOTARRA)**




**Informazio gehiago:**  
**GAZTE ZERBITZUA**  
**Tfnoa: 77 00 65**



# ZER NAHIAGO?

## Libe Martinez

### AEDko Udalekuetako begiralea



- **Bainu jantzia ala bikini?** Biak erabiltzen ditut, baina azken aldian bikini gehiago.
- **Eguzkia hartzeko kremarik?** Bai, oso zuria naiz eta.
- **Egon zara hondartzan aurten?** Ez, oraindik ez.
- **Tabarra handia ematen dizute umeez?** Bai, dexente.
- **Zergatik udalekuetako begirale?** Puff! hasieran ahizpari deitu zioten baina ezin zuela eta, niri deitu zidaten.
- **Erosi duzu zerbait beherapenetan?** Ez, udan ez behintzat.
- **Oporrak pasatzeko herri turistikoa aukeratuko duzu?** Bai, Katalunia edo Asturias aldera joango naiz.
- **Oporretarako kanping-a ala hotela?** 15 egun apartemenduetan egongo naiz eta gero seguruenik hotelean.
- **Zein liburu irakurriko duzu oporretan?** Orain "El perfume" irakurtzen nabil.
- **Zenbat txandatan izango zara begirale?** Lehen txandan bakarrik.
- **Zapatilak ala sandaliak?** Zapatilak.
- **Lo egiteko pijamarik?** Bai.
- **Noiz da zure urtebetetzea?** Abenduaren 28an, broma asko aguantatu behar izaten dut.
- **AEDren inguruan mugitzen zara?** Oraintxe, Udalekuak direla eta.
- **Gustatzen zaizu igerian egitea?** Bai, normala naiz, ez onegia.
- **Hippyak gustatzen?** Berdin dit, ez dakit.
- **Udarako gomendio bat?** Gustora ibiltzea, ahalik eta ondoen pasatzea.
- **Jarraitzen duzu tourra?** Bai, etxean txirringuzaleak ditut eta...

## BERTSOAK

### ABUZTUA DALA TA

Benidorrera goazela ta amari behar obedi aitaxo dugu umore txarrez karreteran adi-adi anai-arrebak kotxean aldiz ezin gara egon geldi jadanik bota ditugu eta bidean hainbat izerdi kotxe gainean badaramagu pilatuta etxe erdi.

Heldu gara ta amak hartu du bainunjantzi ta sonbrila hondartzan nonbait tokia hartzeko behar dugu espaloia ondo antzean pasatuko deu Benidorreren opor hila ta eguzkiak gogor joteaz gain daude turista pila konturatuaz hantxe gaudela Arrasatekoak mila.

MAIER VELEZ OLABARRIA

## ARTOLA KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3  
Tfnoa: 79 14 40  
ARRASATE

## GIZON ETA EMAKUMEAREN MODA



Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE



## IKASTAROAK

Osasun laguntzailea  
Psikiatria laguntzailea  
Puerikultura

%90ak azterketak gainditu  
General Loma 4-3. GASTEIZ  
Tfnoa: (945) 23 33 99

## ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



## IKASTAROAK

Pelukeria  
Estetika

F.P. 1 Titulu Ofiziala  
General Loma 4-3. GASTEIZ  
Tfnoa: (945) 23 33 99



# Arrasate Presse




**Arantzazu Loidi**



**Joxe Aranzabal**



**Iñaki Mendiguren**



**Bego Zubia, "Txubi"**

## 5.000 familia

**200** astetan aldizkaria ka-lean eta buzoietan egon dela ospatzeko, zerbait berezia egin behar izan dugu. Egia esan, lau urte hauetan beti denok egon ez garelako, edo pasatakoa pasa delako, edo memoria txarra dugulako, edo aurrera begira, hurrengo zenbakiari begira bizi garelako, memoria egite aldera, haserako ideia izan zutenak, langileak, kolaboratzaileak, adituak bildu ditugu orrialde honetara.

Baina badakigu horrekin ez dela ARRASATE PRESS guztia ordezkaturik geratzen. Beharbada, zatirik inportanteena falta da: aldizkariaren jasotzailea, irakurlea.

Eta mondragoekeo kasuan, auzo, kale, atari, eta ate ezberdinetan bizi diren 5.000 familia dira. Denek merezi dute orri honetan aipamena, denek, osatu dugun tarta honetatik zatitxo bat.

On egin deizula berrehungarrenak, eta hurrengoak, eta hurrengoak... Zorionak zuri ere!

## Prentsa lokala

**Inoiz** bizi izan duen momenturik onena bizi duela uste dut. Jardunaldiak prestatzen ari garela, datu bilketa egin dugu, eta ondorioa Euskal Herrian euskaraz egindako prentsa lokala 250.000 irakurlerengana heltzen dela da. Zifra esanguratsua da, inoiz ez da izan horrelakorik. Prozesu honetan ARRASATE PRESSEK izan du eraginik. ARRASATE PRESSEK ez du asmatu prentsa lokala, baina fenomeno hori euskal prentsara ekarri zuen.

Etorkizunera begira ikusten da mugimendua ez dela geldituko, gehiago sortuko direla. Ora in beste erronka batzuk dauzka euskal herri-prentsak. Materialak eta giza-baliabideak amankomunean jartzea aldizkariaren artean. Beste erronka bat oraingo produktuak hobetzea da, informazioaren arloan eta itxuraren arloan, gaiak hobeto tratatzea eduki aldetik eta baita aurkezteko moduan ere.

## Informatzeko era

**Iruditzen** zait ARRASATE PRESS ostiral arratsero jakinguraz eta irrikaz espero izaten den zerbait dela etxe askotan. Informazio lokalari—lehen, gehienbat erdaraz, egunkarietako orrialdezati batera mugatua zegoenari— normalizazio-maila eta garrantzizko estatus bat eman dio.

Arrasate, bere biztanle eta auzo-kopuruagatik, dagoeneko handiegia da bertan gertatzen den guztiaren berri ahoz aho izateko. Beraz, Santamainatik Uribe Auzora edo Udalatik Bedoñara, informazioa jartzen du zirkulazioan. Eta hau oso beharrezkoa iruditzen zait komunitatean biztanle guztien integrazioa bultzatzeko.

ARRASATE PRESSEDEN albiste ez dira heroiak, idoloak, ospetsuak eta ezagunak bakarrik, baizik eta herritar "normal" eta arruntak, batez ere. Inguruko eta ohizko gauza txikien garrantzia azpimarratzen digula esango nuke.

## Hasierako lanak

**Oso** txarto, gaupasa eta disgusto asko hartu genituen hasieran, baina hamargarren zenbaitik aurrera lasaiago ibili ginen. Zailtasun handiak zeuden, maketatzen inork ez zekielako. Gero, aldizkariaren inguruan denok genuen ideien bat baina definitu barik zegoen oraindik, astetik atera aldatzen ziren gauzak, nahiz eta sekzio finko batzuk bazeuden.

Eta tira, kristoren gaupasak egiten genituen, guk geuk maketatu behar genuen eta. Herrian lan egiteko, guk baino zailago publikitatekoek zeukaten. Jende askok ez zuen sinesten aterako genuenik, eta ateratakoan, hurrengoan ezetz, pentsatzen zuten. Bi pertsona ginen lanean eta hori ere planteamendu berezia zen, jendeak gauza arraroa balitz bezala hartzen zuen, boluntarismora ohituta. Gero, zailtasun haien ondoren, asuntua oso erraz joan zen.


### LODITASUNA, LIPOESKULTURA, ZELULOLIPOLISIA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

#### ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)  
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



## ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE



# sen 200. zenbakia!




Jose Mari Eraña



Jose Felix Diaz de Tuesta



Estepan Plazaola



Goio Arana

## Hastapenak

**Faktore** askok lagundu gintuzten proiektu hau sustatzen. 1) Maila lokalean orduan zegoen defizit informatibo handiaz jabetzea. 2) Proiektu hau euskaraz gara zitekeelako ziurtasuna, herriaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan harturik. 3) Udala proiektuan sartu zitekeelako kontsiderazioa, izan ere, informazio eta kultura alorretik ekarpen handia baitzen herriarentzat, eta euskararen normalkuntzarako interes dudahazinekoa zen. 4) Udalak zeuzkan mekanismo eta baliabideak ezagutzen genituen, proiektua sustatu edo laguntzeko. 5) AED elkartearen presentzia. 6) Teknologia berriak egotea merkatuan, bereziki autodizio sistemak.

Koktel honetatik, irudipena, erralitatearen ezagupena, zentzu praktikoa eta gogoia elkarlotuz, baliabideak aprobetxatuz eta denen inplikazioa bilatuz, horrela jaio zen aldizkaria.

## II. Ihardunaldiak

**Azken** urteotan indartsu loratu dira gure artean herri-komunikabideak, euskarazko prentsa lokala batez ere. Dagoeneko asko dira aldizkari, irrati edo telebista lokala duten udalerriak. Eta badira udalerrri banaka batzuk komunikabide hauetako bat baino gehiago dutenak, Arrasate, kasu. Baina asko dira oraindik ere herri-komunikabideen fenomenoak ezagutzen ez duten udalerriak.

Hori guzti hori dela eta, euskarazko komunikabide lokal bat martxan jarri nahi duten guztiei lagundu eta dagoeneko lanean ari direnei aurrerantzean arreta modu eraginkorragoan aritzeko erak eskaintzeko asmoz, ARKOK Herri-Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak antolatuta, azaroaren 26 eta 27an. Pozgarria da jakitea gaur 200. zenbakira iritsi den ARRASATE PRESSEK euskarazko diren 35 herri-aldizkariaren aintzindari eta erreferentzia izaten jarraitzen duela oraindik ere.

## Euskalgintza

**Ez** dago aldizkariak euskararen normalkuntzan izan duten eraginari buruzko azterketarik. Edozein modutan, uste dut euskararen normalkuntzarako laguntzabide haundia direla. Euskarazko herri prentsak bestela inoiz euskaraz idatziko ez zuten asko idazten jarri eta trebatu egin ditu. Euskaraz inoiz publizitate egin gabeko askok egin dute ARRASATE PRESSE eta gaur egunean horientzat aukera normala da. Bergaran behintzat Berrigarako harpidedunen %59aren esanetan, aldizkariak euskaraz errazago irakurtzen lagundu dio eta %50ak dio euskaraz irakurtzeko ohitura gehitu egin zaiola.

Komunikabide erraldoiek nekez hartuko dituzte hizkuntza txikiak kontutan, hizkuntza-normalkuntzan aurrerapausurik eman nahi badugu, herri-prentsa, telebista, irrati... ezinbestez euskaraz izan behar ditugu. Ea kapaz garen....

## Itxuraz

**Hasieran** dena erdipurdi zegoen eginda, inprobisatuta; zegoenarekin betetzen zen. Handik urte t'erdira gauzak arrazionalizatzen joan ginen, homogeneitatea emanez. Itxura gehiegi aldatu barik, apur bat arrazionalizatu genuen. Laz, urrian, hasieratik birplanteatu genuen aldizkaria. Kritikak jaso genituen, estudioak irakurleen artean. Arrazoi induta sartu genituen aldaketak: lau zutabetara pasatu, letra pittintxo bat txikiagoa, titularren letra tipoa aldatu, hutsune eta zuri gehiago sartu. Horrekin aldizkaria argiago, txukunago eta malguagoa izatea lortu genuen.

Irakurleak ez du igarri aldaketa larregi azkenekora arte, baina gauzak hobetzen joan dira. Aldaketak jarraian egin dira, apurtu barik, irakurlea despistatu barik. Zero zenbakitik orain arteko aldizkariak logika bat dauka, ematen du prozesu natural bat dela, nahiz atzetik prozesu sakon bat egon.

Garagartza auzoan  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

UGARAN  
jatetxea

Arreta handiko  
sukaldea.  
Giro abegikorra.



• ESAERA ZAHARRA •

*“Emailearei ez zaio bartzailea faltako”*

• JEROGLIFIKOA •

**KiN**

Non daude txalupak?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10					11	
12			13		14	
15		16		17		
18			19		20	
21			22			

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Enrike, txirrindulari arrasatearra. 8. Desegin. 10. Semearen semea. 11. (Ald.) Izenordain. 12. Errepikatuz lelo. 13. Xumea. 15. Arnas gabeziaz hil. 17. Atzizkia. 18. Pas-de-Calais kostaldeko portua. 21. Bizkaiko udala. 22. Denbora mugatua.

**Bertikalak** 1. Exenplu. 2. Tontatua. 3. Guztiz. 4. Alabarekiko, gurasoen semea. 5. (Ald.) Esaldi. 6. Osmioa. 7. Atzerapen. 9. Bordatzeko ehun egokia. 14. Antz. 16. Txar ez dena. 19. Zerbait erretzean sortzen da. 20. Kontsonante baten izena.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Zure zeinuak adarrak dauzka, beraz ez harritu zure kuttuna zintzoegi ez badabil.

**Taurus** Oporretan Marokkora bazoaz ez ahaztu tipikoena ekartzen (babutxak!).

**Gemini** Lepoko indiar horiek oso modan daude, baina ez datozkio ondo zure estiloari.

**Cancer** Ezkutuan maite duzu, baina ezkutuan dagoena ez dago ikusterik.

**Leo** Ez pentsatu irailleko azterketetan, abuztua daukazu horretarako.

**Virgo** Herri bateko jaietara joango zara, edan egingo duzu, mozkortu egingo zara, eta...

**Libra** Dirua: eskas. Amodioa: erdipurdi. Osasuna: ajea. Lana: ezta pentsatu ere.

**Scorpio** Zure burua lxa smnehflyB, ncnjds eta, jakina, ez duzu ezer ulertzen.

**Sagitarious** Ura ez da horren ona. Bada-kizu zenbat itotzen diren urtero?

**Capricorn** “Lau teilatu” da zure abesti faborittoa? Ba, repertorioa berritu, aizu.

**Aquarius** Toureko posturan ez duzu ezer irabaziko. Ea datorren urtean.

**Piscis** Edozein egunetan Mikel Markezek zure begiak aipatuko dizkizu.

**BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

**Mamografia**

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

**GINEKOLOGI  
KONTSULTATEGIA**



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



• UMEEN GOMENDIOA •



Unai, Markel, Gorka, Jone eta Maider..., Babylekuetan dabil-tza, eta horrelako ekitzetan parte hartzea da euren gomendioa. "Pizina-ra joan, Garagartzara, Santa Barbarara oinez, bedarretan burrukan egin..." egiten dituzte, eta oso ondo pasetan dute. Oraindik horretara animatu ez direnak, iraileko Udalekutxoetan parte hartzera gonbidatuko lituzke-te. Eurek ere, segu-ru asko hartuko dute parte!

• PROGRAMAZIOA •



19 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak  
8,8,30,9 Berriak  
9.30 Asteko Zinea:  
Robocop

20 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak  
8,8,30,9 Berriak.  
9.30 Asteko Zinea:  
Robocop

21 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak  
8,8,30,9 Berriak  
9.30 Asteko Zinea:  
Robocop

22 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak  
8,8,30,9 Berriak  
9.30 Asteko Zinea:  
Robocop

23 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak  
8,8,30,9 Berriak  
9.30 Asteko Zinea:  
Robocop

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

Osbak.

JEROGLIKOA

9. Tula. 14. Aire. 16. On. 19. Ke. 20. Ka.  
Oso. 4. Neba. 5. Suaprep. 6. Os. 7. Luzapen.  
Bertikalak: 1. Adibide. 2. Letotua. 3.  
17. Ri. 18. Dunkerke. 21. Ea. 22. Epean.  
10. Ioba. 11. Uz. 12. Bo. 13. Apatia. 15. Ito.  
Horizontalak: 1. Alonso. 8. Desustu.

GURUTZEGRAMA



Parz Manceras  
Bitxitegia

Iturriotz, 7 bis. Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE



# IBIL ZAITEZ GOI MAILAN

Martxan jarri auto baten benetako balioak.  
Martxan jarri ekipamendurik apartena.  
Martxan jarri segurtasun neurri erosoena.  
Martxan jarri Opel Vectra bat. Martxan.

**300.000** Pezeta\*  
**BITARTEKO  
DESKONTUA**



\*Stock-ean dauden autoentzako promozioa hilabete honetan.

**OPEL** 

**Z A I N G A U Z K A Z U**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Guipuzkoa)  
Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria  
Zerbitzu Oficiala ARETXABALETAn

**TALLERES NORTE**

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL AUTO DENDA OFIZIALAK. DENBORAREN PODERIOZ ONENAK.